

A1 MAILA



Zirk**orrika**
(AUTOIKASKUNTZA)

Zirkorrika

Ataza hauen helburu nagusia da ikasleek 20. Korrikaren kanta ezagutzea. Aurrekoaz gain, mailari dagozkion hainbat edukiri erreparatzea ere izango dugu helburu, jakina.

Helburuoi heltzeko, ondoko atazak proposatzen dizkizugu.



1. ataza: Aurreko Korriken kantak (4. or.)



Ataza honen helburua 20. Korrikaren kantarekiko interesa piztea da. Horretarako, ikus-entzunezko baten bitartez aurreko Korriken kantak gogoratuko ditugu, eta, kantekin batera, Korrikeri buruzko datu batzuei erreparatuko diegu.

Horrekin batera, ikasleek Korrika kanten artean gogokoena aukeratuko dute eta hautaketa horren arrazoia azalduko diete ikaskideei.

HELBURUAK

- ▶ Korrikaren kantei buruzko interesa piztea.
- ▶ Aurreko edizioetako Korriken kantak gogora ekartzea.
- ▶ Gustuak eta zaletasunak adieraztea.

IKASLEEI AIPATZEKO OHARRA: Lehenengo Korriketan ez zen Korrikaren kantu ofizialik egoten, 8. Korrikara arte gutxi gora behera. Ordura arte hainbat kantu egin ziren Korrika girotzeko (Egan, Akelarre, Oskorri...) baina ez dira Korrika zehatz baten kantak. Egin ziren garaietatik Korrikaren batekin lotuta agertzen dira bideoan, baina berez, ez dira Korrika haien kantu ofizialak.

2. ataza: 20. Korrikaren kanta: Zirkorrika (9. or.)



Ataza honen helburua 20. Korrikaren kanta ezagutzea da. Horretarako, bideoklipa ikusi ondoren kantaren letra osatzeko jolasa egingo dugu.

Kantan eta Korrikaren leloan agertzen den "bat" hitzaren erabilera batzuk ezagutzeko eta lantzeko ariketa egingo dugu.

HELBURUAK

- ▶ 20. Korrikaren kanta ezagutzea eta ikastea.
- ▶ "Bat" hitzaren erabilera batzuei erreparatzea.



Mintzatu



Bideoa ikusi



Kanta



Idatzi



Entzun



Irakurri



Jolasa



Ariketa



1. ATAZA: aurreko Korriken kantanak

A. Korrika kantanak baloratzen.

Ikasleek, ikus-entzunezko baten laguntzaz, aurreko Korriken kantanak gogoratuko dituzte eta gehien gustatu zaien kantaren aurkezpena idatziko dute.

TUTORETZA

Jaso ikasleek idatzitako testuak eta lagundu testu horiek zuzentzen.

2. ATAZA: 20. Korrikaren kanta: Zirkorrika

A. Kanta ikasten

Ikasleek "Zirkorrika" bideoklipa ikusi eta kantaren letra ikasteko jokoak egingo dute.

TUTORETZA

Mintzatu ikasleekin "Zirkorrika" kantari buruz eta lagundu kantaren letra ulertzen.

MINTZASAIIOAN GAI AZ ARITZEKO PROPOSAMENAK

- "Korriken kantanak" ikus-entzunezkoa ikusi ondoren ikasle bakoitza gehien gustatu zaion kantaz mintzatuko da: zein den, nork abesten duen, zein Korrikatakoa den, zergatik gustatzen zaion...
- "Zirkorrika" bideoklipa ikusi ondoren, talde handian kantari buruz mintzatuko gara.



1. ATAZA: aurreko Korriken kantak (A1)

Ikus-entzunezko baten laguntzaz, aurreko Korriken kantak gogoratuko dituzu eta gehien gustatu zaizun kantaren aurkezpena idatziko duzu (*con la ayuda de un audiovisual, recordaremos las canciones de las anteriores ediciones de Korrika y escribiremos la presentación de la que más nos guste*).

EGINKIZUNAK

- Irakurri "Kantarik onena" ariketaren aurkezpena eta adibideak (6.-7. or.).
Lee la presentación y los ejemplos del ejercicio "Kantarik onena" (págs. 6 y 7).
- Ikusi "Korriken kantak" ikus-entzunezkoa eta jaso 6. eta 7. orrialdeetako fitxetan kanten balorazioa.
Visiona el audiovisual "Korriken kantak" y valóralas en las fichas de las páginas 6 y 7.
- Aukeratu gehien gustatu zaizun kanta. Behin kanta aukeratuta, jarri berriro ikus-entzunezkoa eta jaso kanta horri buruzko informazioa 8. orrialdeko fitxan.
Escoge la que canción más te haya gustado. Una vez escogida dicha canción, visiona de nuevo el audiovisual y recoge la información sobre esa canción en la ficha de la página 8.
- Idatzi aukeratu duzun kantaren aurkezpena 8. orrialdeko gidoiari jarraiki.
Escribe la presentación de la canción que has escogido siguiendo las instrucciones de la página 8.
- Erantzun "Aurreko Korrikeri buruz" ariketaren galderei (9.-10. or.).
Responde a las preguntas del ejercicio "Aurreko Korrikeri buruz" (págs. 9-10).

ZUZENKETAK

- Idatzitako testua tutoreari erakutsi zuzentzeko (*muestra el texto que escribas a tu tutor o tutora para su corrección*).
- Erantzunak, 15. orrialdean (*respuestas, en la página 15*).



2. ATAZA: 20. Korrikaren kanta: Zirkorrika (A1)

Ikusi "Zirkorrika" bideoklipa eta egin kantaren letra ikasteko jokia (*Visiona el videoclip "Zirkorrika" y haz el juego para recordar la letra de la canción*).

EGINKIZUNAK

- Ikusi behin edo birritan "Zirkorrika" bideoklipa.
Visiona una o dos veces el videoclip "Zirkorrika".
- "Zirkorrika osatzen" memoria-jokoaren instrukzioak arretaz irakurri ondoren (11. or.), jokatu "Zirkorrika osatzen" PDFa erabiliz.
Una vez leídas las instrucciones del juego de memoria "Zirkorrika osatzen" (pág. 11), juega al mismo usando el PDF "Zirkorrika osatzen".
- Egin "BAT hitzaren esanahia" ariketa (12.-13. or.).
Haz el ejercicio "BAT hitzaren esanahia" (págs. 12-13).

ZUZENKETAK

- Kantaren letra ondo ulertzen ez baduzu, argitu zalantzak tutorearekin (*si tienes problemas para comprender la letra de la canción consulta tus dudas con tu tutor o tutora*).
- Erantzunak, PDFan bertan aurkituko dituzu (*las respuestas las encontrarás en el mismo PDF*).
- Erantzunak, 15. orrialdean (*respuestas, en la página 15*).
- Erakutsi adibideak zure tutoreari zuzentzeko (*muestra los ejemplos que escribas a tu tutor o tutora para su corrección*).



Ondoko azalpenak irakurri ondoren, ikusi "Korriken kantak" ikus-entzunezkoa eta baloratu aurreko edizioetako kantak.

Una vez leídas las siguientes explicaciones, visiona el audio-visual "Korriken kantak" y valora las canciones de las ediciones anteriores.

➔ Kanta bat baloratzean, honelakoak esan ditzakegu (Al valorar una canción, podemos decir lo siguiente):

Polita / itsusia da
Gogoraerraza da (*pegadiza*)
Alaia / tristea da
Gozoa da (*dulce*)
Zaratatsua da (*ruidosa*)
Astuna da

Aspergarria da
Geldoa da (*lenta*)
Ederra da
Bitxia da (*curiosa*)
Jasanezina da (*insoportable*)
...

➔ Eta balorazioa graduatu egin dezakegu (Y podemos graduar nuestra valoración):

Polit-polita da
Oso polita da
Polita da
Nahiko polita da

Ez da oso polita
Ez da batere polita
Geldoegia da (*demasiado lenta*)
Zaratatsuegia da (*demasiado ruidosa*)

➔ Jarraian, entzun dituzun kantak baloratuko dituzu (A continuación, valorarás las canciones que has escuchado).

KANTA	EZAGUTZEN DUZU?	BALORATU 1 ETIK 10 ERA (1: ez zait batere gustatu; 10: asko gustatu zait).	IDATZI ESALDI BAT KANTA DESKRIBATZEKO
1. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
2. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
3. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
4. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
5. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
6. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
7. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
8. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10



KANTA	EZAGUTZEN DUZU?	BALORATU 1 ETIK 10 ERA (1: ez zait batere gustatu; 10: asko gustatu zait).	IDATZI ESALDI BAT KANTA DESKRIBATZEKO
9. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
10. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
11. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
12. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
13. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
14. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
15. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
16. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
17. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
18. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
19. KORRIKA	<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> EZ	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

➔ Korrika-kanten artean politena aukeratzekotan, zein aukeratuko zenuke? (Si debieras escoger, entre las canciones de la Korrika, la más bonita, ¿con cuál te quedarías?).

.....





- ➔ Ikusi berriro "Korriken kanta" ikus-entzunezkoa eta jaso aukeratu duzun kantari buruzko datuak (Visiona de nuevo el audio-visual "Korriken kanta" y escribe los datos sobre la canción que has escogido).



Noiz egin da Korrika hori?

.....

Nondik nora joan da?

.....

Nork egin zuen kanta?

.....

Zein izan da Korrikaren leloa?

.....

Nor omendu du Korrika horrek?

.....

- ➔ Orain arteko Korrika-kanta onena aukeratu duzu. Orain, idatzi kanta horren aurkezpena (Acabas de escoger la, según tu, mejor canción de la Korrika hasta el momento. Ahora deberás escribir una pequeña presentación de esa canción).

- a. Aurkeztu kanta labur (Presenta brevemente la canción): Nork egin du? Noiz? Nolakoa da?...
- b. Gogoratu labur kantari dagokion Korrika (Recuerda brevemente la Korrika a la que corresponde dicha canción): Noiz izan da? Nondik nora joan da?...

A large blue rectangular area with horizontal lines for writing, resembling a spiral notebook page. The lines are evenly spaced and extend across the width of the area.



AURREKO KORRIKEI BURUZ



Irakurri ondoko testua eta erantzun galderai.

Lee el siguiente texto y responde a las preguntas.

3. KORRIKA



3. Korrikaren kanta *Egan* taldeak egin du. Hau da kantaren hasiera:

*"Korrika goaz iritsi arte
gure herriko helmugara.
Horretarako lehen urratsa
indartu behar euskara"*

Zer dakizu 3. Korrikari buruz?

1. NOIZ EGIN DA 3. KORRIKA?

- a. 1984ko azaroaren 28tik urriaren 7ra
- b. 1983ko abenduaren 3tik 11ra
- c. 1982ko martxoaren 11tik 22ra

2. HIRUGARREN KORRIKA BAIONATIK BILBORA JOAN DA. HORI IZAN DA BILBON AMAITU DEN LEHEN KORRIKA?

BAI EZ

3. ORAIN ARTE, ZENBAT KORRIKA AMAITU DIRA BILBON?

- a. Hiru
- b. Bost
- c. Zazpi

4. NOR IZAN DA 3. KORRIKAREN OMENDUA?

- a. Gabriel Aresti poeta
- b. Jorge Oteiza eskultorea
- c. Jose Miguel Barandiaran harri-jasotzailea

10. KORRIKA



10. Korrikaren kanta *Gozategik* egin du. Kanta horretan "Korrika" hitzaren letrekin jolasten da.

*"K" azkenik sartu da Bilboko kaleetan
"A" ikasten hasi da, non eta AEKn*

Bai, 10. Korrika ere Bilbon amaitu da. Baina...



5. NON HASI DA?

- a. Karrantzan b. Arantzazun c. Urepelen

6. NOIZ EGIN DA?

- a. 1997ko martxoaren 14tik 23ra
- b. 1997ko apirilaren 31tik maiatzaren 10era
- c. 1997ko irailaren 25etik azaroaren 5era

7. ZEIN IZAN DA 10. KORRIKAREN LELOA?

- a. Euskahaldun
- b. Euskal Herria Korrika
- c. Bat eta bat hamaika, zu eta ni euskaraz

8. HAMARGARREN KORRIKAK HIZKUNTZALARI EZAGUN BAT OMENDU DU. NOR?

- a. Luis Villasante b. Xabier Lete c. Jose Angel Iribar

15. KORRIKA



15. Korrika euria eta elurraren artean egin da. Korrika horren kantak "Heldu" du izena.

*"Heldu, heldu euskarari
heldu, heldu Korrikari
erabiliz barra-barra
Karrantzatik Iruñera"*

Kanta Niko Etxartek egin du. Baina berarekin beste rockzale ezagun batek ere kantatzen du.

9. NOR DA ROCKZALE HORI?

- a. Mikel Laboa b. Enrique Villarreal, *El Drogas* c. Kepa Junkera

10. NOIZ EGIN DA 15. KORRIKA

- a. 2007ko otsailaren 19tik 30era
- b. 2007ko azaroaren 20tik 31ra
- c. 2007ko martxoaren 22tik apirilaren 1era

11. ZEIN HERRIALDETAN HASI DA 15. KORRIKA?

- a. Bizkaian b. Gipuzkoan c. Araban

12. KORRIKA HIRU ALDIZ AMAITU DA IRUÑEAN. BAINA, ZENBAT ALDIZ HASI DA BERTAN?

- a. Behin ere ez b. Behin c. Bi aldiz d. Lau aldiz



“Zirkorrikaosatzen” memoria-jokoa

Joko honetan, “Zirkorrikaosatzen” PDFa erabiliko dugu.

Jokoaren helburua

- ▶ Joko honetan “Zirkorrika” kanta hiru ataletan banatuta aurkituko dugu. Atal bakoitzean kantaren estrofa bi daude, eta jokoaren helburua da atalak osatzeko falta diren hitz guztiak segidan gogoratzea.

Jokoaren arauak

- ▶ Jarri pantailan “Zirkorrikaosatzen” PDFa.
- ▶ Saia zaitetz lehenengo hutsunean falta den hitza gogoratzen eta pasatu hurrengo orrira. Hitza asmatu baduzu, saia zaitetz hurrengo hutsunea betetzen eta jarraitu horrela hitzen batekin huts egin arte.
- ▶ Asmatzen ez baduzu, ordea, eraman PDFa atalaren hasieraraino eta hasi berriro atal horren lehenengo hutsunetik.
- ▶ Atal baten hutsune guztiak jarraian osatzea lortzen duzunean, hurrengo atalarekin hasi eta jarraitu horrela kantaren hitz guztiak gogoratu arte.

Para este juego, usaremos el PDF “Zirkorrikaosatzen”.

Objetivo del juego

- ▶ En este juego encontraremos la canción “Zirkorrika” en tres partes. Cada una de ellas está compuesta por dos estrofas, y el objetivo es recordar consecutivamente todas las palabras que faltan en ellas.

Reglas del juego

- ▶ Pon en la pantalla del ordenador el PDF “Zirkorrikaosatzen”.
- ▶ Intenta adivinar la primera palabra que falta en la canción, y pasa a la página siguiente. Si has adivinado la palabra, inténtalo con la segunda y sigue así hasta fallar con alguna palabra.
- ▶ En caso de no adivinar, lleva el PDF hasta el comienzo de la parte en la que te encuentres, y comienza de nuevo con la primera palabra que falta.
- ▶ Cuando consigas recordar una tras otra todas las palabras que faltan en una de las partes, pasa a la siguiente hasta conseguir recordar todas las palabras de la canción.

**BAT HITZAREN ESANAHIA**

*Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara, euskara bat, mundu bat.*

“Bat” hitza askotan erabiltzen da 20. Korrikaren kantan. Izan ere, hitz horrek erabilera ugari ditu euskaraz. Jarraian, erabilera horietako batzuk ikasiko ditugu (*La palabra “bat” se utiliza una y otra vez en la canción de la vigésima Korrika. De hecho, esa palabra tiene multitud de utilidades en euskara. Seguidamente, conoceremos algunas de esas utilidades*).

Ondoko azalpenak eta adibideak *Elhuyar* hiztegitik jaso ditugu. Irakur itzazu arretaz eta, ondoren, euskaraz idatzi testuan falta diren esaldiak (*Las explicaciones y los ejemplos siguientes los hemos recogido del diccionario Elhuyar. Léelos con atención y, después, escribe en euskara las frases que faltan en el texto*).

bat  **eu > es****1 zenbtz. zehazt. un, una; uno, -a**

liburu bat erosi du, ez bi: ha comprado un libro, no dos

litro bat esne: un litro de leche

2 zenbtz. zehazt. el uno, la una

ez bata ez bestea: ni el uno ni el otro

batak baietz esan du; besteak ezetz: la una a dicho que sí; la otra que no

3 zenbtz. zehazt. (zenbakiaren ondoren) aproximadamente, poco más o menos, unos, unas

horrek sei bat gozoki jan ditu: ese ha comido unos seis dulces

Expressions [+]**bat ere**

(ezezko testuinguruetan) **ninguno, -a; ni uno, -a; ni siquiera uno, -a**

lagun bat ere ez da jaira etorri: ningún amigo ha venido a la fiesta

ez du hitz bat ere ulertu: no ha entendido ni una palabra

batez ere

sobre todo; en especial; principalmente, singularmente

dotore asko janzten da egunero, baina batez ere igandeetan: viste con mucha elegancia a diario, pero especialmente los domingos



Korrikaren lehenengo eguna



20. Korrika Otxandion hasiko da. Niri Korrika asko gustatzen zait, _____, lehenengo eguna (1). Horregatik, egun horretan jai hartuko dut eta Otxandiora joango naiz bi lagunekin. Lagun horiek Durangokoak dira, ni bezala. Baina orain, bai _____ bai _____ bizi dira (2). Ez _____ ez _____ ez daukate autorik (3); horregatik, Otxandiora etortzeko autobusa hartu beharko dute. _____ beharko dituzte (4) haraino iristeko.

Beste _____ ere etorri nahi du (5); baina, oso urrun bizi da.

Egia esan behar badut, Otxandiora joan nahi dut jaiak asko gustatzen zaizkidalako. Baina korrika egitea ez. Oso nekagarria da. Dena dela, aurtan entrenatu egin naiz, eta _____ egin nahi ditut. (6). Gutxienez, Legutioraino iritsi nahi dut. Horixe da nire erronka.

Eta zuek zer egingo duzue? Otxandiora etorriko zarete, ezta?

- | | |
|--|--|
| (1) sobretudo , <i>el primer día</i> | (4) necesitarán unos 40 minutos |
| (2) tanto el uno como el otro viven en Iruñea | (5) otra amiga también quiere venir |
| (3) ni el uno ni el otro tienen coche | (6) quiero hacer unos diez kilómetros |

➔ Orain, idatzi adibide gehiago ikasi dituzun egitura berrieekin (*Escribe algunos ejemplos más utilizando las nuevas estructuras que acabas de aprender*)

- **bat** (zenbtz. zehazt.) **un, una; uno, -a**

- **bata** (zenbtz. zehazt.) **el uno, la una**

- ... **bat** (zenbakiaren ondoren) **aproximadamente, poco más o menos, unos, unas**

- **bat ere** (ezezko testuinguruetan) **ninguno, -a; ni uno, -a; ni siquiera uno, -a**

- batez ere, **sobre todo; en especial; principalmente, singularmente**

20. Korrikaren kanta

ZIRKORRIKA

Hizkuntzaren malabaristak,
akrobatak, trapezistak,
herri honen ilusionistak...
bidera atera gara,
mundura atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara,
euskara bat, mundu bat.

Bi urteko ekilibristak,
su-irensle optimistak,
jaiotzetik ilusionistak...
bidera atera gara,
Korrika atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Atso-agure kontortsionistak,
pailazoak, eskapistak,
euripean ilusionistak...
bidera atera gara,
mundura atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara,
euskara bat, mundu bat.

Ahots kordan funanbulistak,
fakirrak ta alkimistak,
ofizios ilusionistak...
bidera atera gara,
Korrika atera gara,
herriz herri igaroko gara!

Bizirauten espezialistak,
bi buruko aktibistak,
bihotzaren ilusionistak...
bidera atera gara,
herriz herri ibiliko gara!

Bat, izan bat, egin bat,
Bat zuk eta bat nik, bat, denok bat,
bat eta batzuk gara,
hona-hara,
euskara bat, mundu bat.



1. ATAZA: aurreko Korriken kantikak.

AURREKO KORRIKEI BURUZ?

1. 1983ko abenduaren 3tik 11ra.
2. Ez, Bilbon amaitu zen bigarrena izan zen. Lehenengo Korrika ere Bilbon bukatu zen.
3. Zazpi: 1. Korrika, 3. Korrika, 5. Korrika, 8. Korrika, 10. Korrika, 14. Korrika eta 19. Korrika.
4. 3. Korrikan, Gabriel Aresti idazlea omendu zuten.
5. Arantzazun hasi zen.
6. 1997ko martxoaren 14tik 23ra egin zen.
7. Euskal Herria Korrika.
8. Luis Villasante.
9. Enrique Villarreal, *El Drogas*.
10. 2007ko martxoaren 22tik apirilaren 1era.
11. Bizkaian.
12. Lau adiz: 2. Korrikan, 6. Korrikan, 8. Korrikan eta 11. Korrikan.

2. ATAZA: korrikaren kanta: "Zirkorrika".

BAT HITZAREN ESANAHI ANITZAK

- (1) ... batez ere, lehenengo eguna.
- (2) ... bai bata, bai bestea Iruñean bizi dira.
- (3) ... ez batak, ez besteak ez daukate autorik,
- (4) Berrogei bat minutu beharko dituzte...
- (5) Beste lagun batek ere etorri nahi du.
- (6) ... hamar bat kilometro egin nahi ditut.